

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Talentua indartzea: Nafarroako enpresa eta zentro europarren (CEIN) haztegi-tako zazpi starupek pertsonen zuzendaritza eta Garapenarako Espainiar Elkartearen AEDIPE Navarrako kideen aholkularitza espezializatua jasoko dute

*Enpresek kudeaketa -eta garapen- eremuetan lanbide-elkargo honetako adituen aholkularitza jasoko dute*

Ostirala, 2018.eko azaroak 23

Nafarroako Enpresa eta Zentro Europarra (CEIN) sozietate publikoaren Berrikuntza Haztegi-tan jarduten duten zazpi enpresek pertsonen kudeaketan adituak diren Zuzendaritza eta Garapenerako Espainiar Elkartearen Aedipe Navarrako aholkularitza jasoko dute.

Starup berritzaileen ekintzaile-talde buruek ez dute prestakuntza edo esperientziarik izaten lanbide-garapenaren eta giza baliabideen eremuan, baina haien berezigarrietako bat da oso azker hazten direla, eta, beraz, ezinbestekoa da langile gaituak ere azkar txetatzea haietan.

Une horretan, betekizun berriak izango dituzte, esaterako, lanbide-profila ezartzea, harrera plana diseinatzea, talentua mantentzea edo taldekideen inplikazioa eta motibazioa sustatzea.

Ekimen berri honen helburua haztegi-tako enpreseei aholkularitza espezializatua ematea da, eta, beraz, Aediperen kideek borondatez eta beren lanbide-ibilbidea oinarri hartuta, enpreseei ezagutza eta esperientzia eta beharren arabera orientatzea eskainiko dizkiete.

Programari hasiera emanez, starupen eta adituen arteko bilera bat egin da, elkar ezagutza sustatu eta banako aholkularitza emateko gero, enpresek persona-kudeaketan dituzten interesen edo aurre-esperientzien eta bileran izandako konexio pertsonalaren arabera.

Hona hemen prozesuaren emaitza gisa aholkulari-lanetan arituko diren adituen eta zerbitzu hori jasoko duten enpresen arteko lotura: Muskilda Pascualena (Idifarma) eta Ikan Biotech; Patricia Villanueva



Enpresa, CEIN eta Aediperen ordezkariak

(Xilema Fundazioa) eta Innoup Farma; Nora Reta (Montaner&Asociados) eta Bee Planet; Daniel Goñi (Thompson Reuters Aranzadi) eta Kunak; Asun Remón (freelance) eta Nubapp; Javier Morrás (freelance) eta Smart Confort; eta Juan Pascual (Tiruña) eta Tedcas.

Orientazioa lau bileretan antolatuta dago (hilabete bakoitzean bat), eta ekintza-plan bat jarraitu beharko dute. Ekintza-plan horretan lan-eremua, xedeak, ekintzak eta emaitzen balorazioa zehaztuko dira.

Ekimen berri hau Nafarroako Enpresa eta Zentro Europarra (CEIN) Berrikuntza Haztegien starupean eskaintako zerbitzuen barruan dago, merkatuan hazten eta lehiakorragoak izaten laguntzeko.

### **Aedipe Navarrari buruz**

[Aedipe Navarra](#), 1980an sortu zen Iruñean, eta Pertsonen Zuzendaritza eta Garapenarako Espainiar Eñkartearen kide da. Nafarroako 130 enpresa ezberdinetan giza baliabideak kudeatzen dituzten 200 profesional biltzen ditu eta pertsonen lanbide-garapena zuzentzen dute oinarriak eta jarduerak garatzea eta sustatzea du xede.